

## [Eusk/Cast] 2017: 15º Aniversario del Bilgune Feminista

EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA :: 19/12/2016

Hemos sido, porque pelearon y serán, porque seguimos en lucha. A partir del reconocimiento de nuestra genealogía feminista nacimos y somos en el feminismo.

### [Euskara]

### 2017: Euskal Herriko Bilgune Feministaren 15.urteurrena

*Borrokatu zutelako izan gara eta borrokan dihardugulako izango dira. Gure genealogia feministen aitortzatik sortu eta egin gara feminismoan.*

2002.

urteko apiriletik jada hamabost urte iragan dira gure aurrekariei testigua hartu eta bide berriak urratu genituenetik. Euskal Herri feminista bat eraikitzeo nahi eta anbizio politiko izugarriz ekin genion bideari. Bilgune Feministaren sorrerak, Euskal Herrirako proiektu politiko nazional berri bat osatzeko beharrari erantzun zion. Egiteko era berriak, sareak josteko era berritzaileak izan ditugu helduleku nagusi. Betiere, sistema patriarkalaren atzaparrak agerian jartzea eta berdintasun politika, diskurso eta praktika faltsuei aurre egitea izan dira jardunbide nagusiak. Baita, emakumeon bizi baldintzak hobetzea eta pertsonen arteko harreman eredu berriak sortzea ere. Iparra argi dugu: Euskal Herria feminista, Euskal Herriaren burujabetza feminista, alegia.

15 urte horietan, 2002an definitu genuen plan estrategikoa ardatz izanda egin dugu bidea. Baino bide hori etengabeko aldaketek gurutzatu dute: Euskal Herriaren egoera sozial, politiko eta ekonomikoak; feminismoen bilakaera eta eguneraketak; patriarkatuaren formak; euskal feminismoa edo feminista gisa jarduteko moduak; bizitza ereduak; militantzia ereduak; Bilgune Feministako militantzia eta egiteko erak etab. Hortaz, etengabeko eguneraketa eta egokitzapena behar izan du Bilgune Feministaren jardunak eta zehazki, estrategia politikoaren eta jardun feministaren eguneraketak.

Horretarako, oinarri nagusi: konpromiso politikoa eta aliantzak izan ditugu.

Euskal Herriaren burujabetza feminista erdiesteko anbizio politikoz jaio ginen eta egun ere apustu hori dugu. Horretarako, indar feminista artikulatzen, ehuntzen, zaintzen jarraituko dugu; finean, kolektiboki borrokatzen.

## **15 urte, ametsak egi bihurtzen. Feminismoak egiten gaitu herri.**

Abagune hau probestu nahi dugu ospatzeko, baina, baita Euskal Herriko Bilgune Feministaren baitan ditugu erronkak mahai gaineratu eta bide horretan gure konpromisoa berresteko ere. VI. Topaketa Feministetan, Ondarroan, trantsizio feministaren oinarriak adostu genituen eta horrez gain, aurrera begira, hiru erronka nagusi identifikatu genituen: Euskal Herriaren burujabetza feministaren inguruko eztabaidea soziala sustatzea; ongi biziaren kontzeptualizazioan eta praktikan sakontzea, pobrezia eta prekarietate neurriei aurre egiteko ekinbideak bazter utzi gabe; eta burujabetza feminista erdiesteko lidergo feminista indartsu bat ehuntzea.

Horretan dihardugu, eta 15.urteurrenaren lanketa horri lotua dago. 2017. urtean ditugun eztabaiden dibertsifikazioa egingo genuke, horren barnean Emakume Abertzaleon VII. Topaketa Feministak inflexio puntu gisa kokatzen ditugularik, bertan, boteretze feministaren gaia izango dugu ardatz nagusi. Jarraian dituzue aurreikusi ditugun ekimenak:

**LIBRE EZIN, ASKE GARA! Espetxe martxa feminista! Otsailak 11**

**SOZIO-EKONOMIA MINTEGIA. Martxoak 25**

**VII.TOPAKETA FEMINISTAK. Maiatzak 6**

**ERAKUNDETZE FEMINISTAREN INGURUKO MINTEGIA. Ekainak 3**

*Bide luzea egin dugu, eta aurrera begira, indartsu gaude, amaraun feminista zabaltzen doa, ilargia dugu indar-iturri eta bidelagun eta burujabetza feminista lortzeko, boteretze feminista dugu erronka.*

**Informazio gehiago: [15urte.bilgunefeminista.eus](http://15urte.bilgunefeminista.eus)**

**Euskal Herrian, 2016ko abenduan**

**EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA**

---

## [Castellano]

### 2017: 15º Aniversario del Bilgune Feminista

*Hemos sido, porque pelearon y serán, porque seguimos en lucha. A partir del reconocimiento de nuestra genealogía feminista nacimos y somos en el feminismo.*

Desde abril del año 2002 han pasado ya 15 años desde que cogimos el testigo de nuestras predecesoras y abrimos nuevos caminos. Nos pusimos en marcha con un deseo y ambición política enormes por construir una Euskal Herria feminista. La creación del Bilgune Feminista respondió a la necesidad de formar un proyecto político nacional nuevo para Euskal Herria. Hemos tenido como característica principal nuevas formas de trabajar, formas innovadoras de tejer redes. Nuestro principal trabajo ha sido siempre poner en evidencia las garras del sistema patriarcal y hacer frente a las políticas de igualdad, discursos y prácticas falsas, tanto como mejorar la vida de las mujeres y crear nuevos modelos de relaciones entre las personas. Tenemos claro nuestro norte: una Euskal Herria feminista, o para concretar más, la soberanía feminista de Euskal Herria.

En estos 15 años, hemos recorrido el camino teniendo en cuenta los ejes que definimos en el plan estratégico de 2002. Pero este camino lo han cruzado constantemente los cambios: la situación social, política y económica en Euskal Herria; la evolución y actualización del feminismo; las formas del patriarcado; el feminismo vasco o las formas de trabajar como feministas; los modelos de vida; los modelos de militancia; la militancia de Bilgune Feminista y las formas de trabajar, etc. Por tanto, el trabajo de Bilgune Feminista ha tenido que realizar una constante actualización y adaptación, en concreto, actualizaciones en lo referente a la estrategia política y a la actividad feminista.

Para ello una base fundamental: hemos tenido compromiso político y alianzas. Nacimos con ambición política para lograr la soberanía feminista de Euskal Herria y hoy en día también es esa nuestra apuesta. Para lograrlo, seguiremos articulando, tejiendo, cuidando, las fuerzas feministas; en definitiva, luchando de manera colectiva.

### **15 años, haciendo realidad los sueños. El feminismo nos hace pueblo.**

Queremos aprovechar esta ocasión para celebrar, pero también para poner encima de la mesa los retos que tenemos en el seno de Euskal Herriko Bilgune Feminista y en este sentido, renovar nuestro compromiso. En los VI Encuentros Feministas, en Ondarroa,

consensuamos las bases de la transición feminista y, además, de cara al futuro, identificamos tres retos principales: la conceptualización del buen vivir y profundizar en la práctica, sin dejar a un lado las iniciativas para hacer frente a las medidas de la pobreza y precariedad; y tejer un liderazgo feminista fuerte para lograr la soberanía feminista.

En ello trabajamos y está unido a la labor de este 15º aniversario. En el año 2017 trabajaríamos en la diversificación que tenemos de los debates, en el que se incluyen los VII Encuentros Feministas que tomamos como un punto de inflexión; en ellos tendremos como eje principal el tema del empoderamiento feminista. A continuación tenéis las acciones que preveemos:

**LIBRE EZIN, ASKE GARA! ¡Marcha feminista a la cárcel! 11 de febrero**

**SEMINARIO DE SOCIO-ECONOMÍA. 25 de marzo**

**VII ENCUENTROS FEMINISTAS. 6 de mayo**

**SEMINARIO SOBRE LA INSTITUCIONALIZACIÓN FEMINISTA. 3 de junio**

*Hemos hecho un largo camino y, de cara al futuro, estamos fuertes, la telaraña feminista se va ampliando, la luna es nuestra fuente de fuerza y compañera de viaje y tendremos como reto el empoderamiento feminista, para conseguir la soberanía feminista.*

**EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA**

---

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-2017-15o-aniversario>